

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

5171

137/2022 DEKRETUA, azaroaren 15ekoa, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari Bic Gipuzkoa Berrilan SA sozietatearen kapital-zabalkuntzan parte hartzeko, eta SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren titulartasuneko akzioen ordezkari, sozietatearen estatutuen 5. artikulua aldatzeko adostasuna emateko.

SPRI-Enpresa-garapenerako Euskal Agentziaren Administrazio Kontseiluak, 2022ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen Eusko Jaurlaritzari baimena eskatzea SPRI-Enpresa garapenerako Euskal Agentziak Sprilur SA sozietatearen kapital-zabalkuntzan parte hartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2018rako aurrekontuak onartzen dituen 5/2017 Legearen 13. xedapen gehigarriaren 5. apartatuaren c) letraren arabera. Partaidetza hori 200.000 eurokoa izango litzateke, hau da, % 50ekoa. Eragiketa horren ostean, % 50ekoa izango da SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren partaidetza.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko den azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren 110.1 artikulua ezartzen duenez, enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko ente baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da; edonola ere, ematen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Kapitala adierazten duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuak, doako esku-rapena ez baldin bada behinik behin, nahitaez adieraziko du zein den sozietatearen xedea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoak sozietatean zuzenean nahiz zeharka izango duen partaidetzaren ehunekoa ere.

Bic Gipuzkoa Berrilan, SA sozietatearen helburu soziala hau da:

a) Zerbitzuak ematea eta ekimenak sustatzea, hain zuzen ere enpresa berritzaileak sortzeko eta Gipuzkoako lurralde historikoan egun dauden enpresak biziberritzeko eta haietan berrikuntza eta dibertsifikazioa sustatzeko. Hona hemen zerbitzu horiek:

- Antzematea Lurralde Historikoan ezar daitezkeen enpresa-proiektuak.
- Aurrez, proiektua egingarria den ebaluatzea.
- Ekintzaile potentzialak hautatzea eta prestatzea.
- Negozio Plana prestatzeko aholkularitza ematea eta plana berrikustea.
- Bazkideak erakartzea eta enpresen arteko akordioak sustatzea.
- Finantza-bideak bilatzen laguntzea.
- Berrikuntzaren eta teknologiaren arloan laguntza ematea.

2022ko azaroaren 28a, astelehena

- Enpresa berrientzako enpresa-sehaska izatea.
- Lokal industrial eta komertzialak eraikitzea, saltzea eta alokatzea.

b) Sozietatea bera garatzeko, beste sozietate batzuetan parte hartzea, fundazioan akzioak edo partaidetzak harpidetuz, sozietateen kapitala gehituz edo akzio edo partaidetzak eskuratuz titulu bidez.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko den azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren 111.2 artikulua ezartzen duenez, zuzenean nahiz zeharka Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren edo Instituzionalaren titulartasuneko akzioen ordezkariak sozietate-estatutuak onartzeko edo aldatzeko onarpena emateko, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko dute, ondareari buruzko eskumenak dituen sailburuak eta sozietatea loturik duen sailburuak biek batera proposaturik.

Kapitalaren zabalkuntzaren helburua da sozietatearen helburu sozialean sartzten diren jarduerak burutzeko funtsak ematea sozietateari.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak batera proposaturik, eta Gobernu Kontseiluak 2022ko azaroaren 15eko bilera proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari baimena ematea Bic Gipuzkoa Berrilan SA sozietatearen kapital-zabalkuntzaren harpidetza egiteko. Berrehun mila euroren harpidetza egingo du; zabalkuntzaren % 50. Eragiketa horren ostean, % 50ekoa izango da SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren partaidetza.

2. artikulua.– SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren titulartasuneko akzioen ordezkari baimena ematea, kapital-zabalkuntzaren ondorioz, Bic Gipuzkoa Berrilan SA sozietatearen estatutu sozialen 5. artikulua aldatzeko adostasuna eman dezaten; honela idatzita geratuko da artikulua hori:

«Kapitala milioi bat eta seiehun mila (1.600.000) eurokoa izango da, eta ehun eta hirurogei mila (160.000) akzio izenduz osatuta egongo da. Akzio bakoitzak hamar (10) euroko balio nominala izango du, eta 1etik 160.000 eurora arteko zenbakiak izango ditu, biak barne. Kapital hori osorik harpidetuta eta ordainduta dago».

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko azaroaren 15ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.